



Bertsozale Elkartearen Berripapera

ESPAÑA	FRANKEO ITUNDUA
	FRANQUEO CONCERTADO
	ZK/NRO 37000126

Bertsozalea

www.bertsozale.eus

2016ko MARTXOA - 172. zenbakia

Aurtengo egitasmoa aurkeztu zaie bazkideei Batzar Nagusian

Bergarako Irizar Jauregian egin zen Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen urteroko bilkura. Aho batez onartu zen 2016ko egitasmoa; aurtengo egitekoen artean *Europa bat-batean* proiektua nabarmendu da.

Goizeko 11:00etan puntuan abiatu zen Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen 2016ko Batzar Nagusia. Bergarako Irizar Jauregiko aretoa bete zen bertara hurbildutako bazkideekin.

Hasteko, Iñaki Murua Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko lehendakariak hartu zuen hitza. Behin bertaratutakoak agurtuta, 2015eko egitasmoaren azalpena eskaini zen ikus-entzunezko bidez. Ondoren, iazkoarekin amaitzeko, balantze ekonomikoari loturiko xehetasunak eman eta onartu ziren.

Ondotik, herrialdeek euren egoeraren berri eman zuten lehendakariaren ahotik eta, era berean, sail bakoitzak bere egitekoen azalpena eskaini zuen. Besteak beste, ertz ezberdinetatik heldu zioten Mintzolak garatuko duen *Europa bat-batean* proiektuari, egitasmo hori nabarmendu baitzen 2016rako egitasmoaren baitan.

Kantu inprobisatuaren nazioarteko topaketa hauek pasa den udazkenean abiatu ziren, Leonen eta Bartzelonan egindako topaketa banarekin, eta aurtengoan ere jarraipena izango dute; are gehiago, topaketa horien ekitaldi nagusiak

iristeke daude. Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburua izango du bidelagun Mintzolak proiektuan. Bazkideei topaketa hauen nondik norakoak azaldu zitzaizkien, eta datozen asteetan honen inguruko xehetasunak zabalduko ditu Bertsozale Elkarteak.

Proiektu ugari

Mintzolanaren baitan kokatzen den proiektu honetaz aparte, beste hainbat egitasmo aipatu zituzten herrialdeetako zein sailletako ordezkariak: Bizkaian eta Lapurdi-Baxenabarre-Xiberoan gauzatuko diren txapelketak, gazteen egonaldi diren bertso-udalekuak eta, era berean, beste hainbat diziplinaren elkargune den Ahots Baten, edota Xenpelar Dokumentazio Zentroaren bilketa indartzeko eta euren egitekoa gizarteratzeko ekintzak.

2016ko egitasmoa aho batez onartu zuten Bergaran elkartutako bazkideek. Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen Batzar Nagusia izan da aurtengo azken bilkura, aurrez egin baitziren herrialdeetakoak: urtarrilean Arabakoa eta Nafarroakoa, eta otsailaren amaieran Bertsularien Lagunak elkartekoa, Bizkaikoa eta Gipuzkoakoa.



**AITOR
SERVIER ETCHECHURI**
Abra sariketako irabazlea
Getxo, 2016-II-12

Gaia: Zalantza askorekin hartu zenuen erabakia. Gaur argi ikusi duzu asmatu zenuela.

Donia: Haizea dator ifarraldetik

Boladatxo bat igaro nuen nere sentipenak gordez barruko harra elikatuaz kanpora atera ordez. Ostegun batez Kafe Antzokian hurbildu zinen adorez nere bisaia jantzi egin zen ilusioz ta kolorez. Gero harremana hasitakoan baneukan aski ondoez zalantza asko neuzkan buruan serio hasi edo ez.

Une batzutan sentitu arren ez genuela lortuko baldintzak argi jarri ditugu bilakatzean gertuko. Baina bikote bihurtu gara konpromisoa ta punto ordea hori gureganatzen inoiz ez dugu galduko elkarrieko errespetua biok dugu hainbat truku. Gauza bakarra argi daukat nik: ez naizela damutuko.

Kontrolgabeko harreman batek ekartzen duen jarduna besteentzako izan liteke ulertezina, iluna. Sarri maitasun romantikoa eredutzat daukaguna bihurtu liteke askatasuna ukatzeko erresuma. Ia egunero hautatzen dugu hartu edo ez maitasuna erabaki hau baita edonoiz aldatu dezakeguna.



Elkartearen erabakigune gorena da Batzar Nagusia. //XDZ

F.C.BAIMEA: 37/126

ISSN 1138-4530

L.G. 55-614/97

Erredikzioa: Bertsozale Elkarte / Diseinua-maketazioa: Lanku / Argizkioa: Xenpelar Dokumentazio Zentrua
Tel.: (0034) 943 694129 / e-posta: komunikazioa@bertsozale.eus

Bertsolaritza irakaskuntza programa finantzatzeari berrekin dio Nafarroako Gobernuak

2013ko irailean bertsolaritza Nafarroako ikastetxeetan irakasteko egitasmorako finantziazioa eten zuen Hezkuntza Departamenduak. Orain, programa berriro babestea erabaki du Nafarroako Gobernuak eta 2016an 52.000 euro bideratuko ditu *Bertsolaritza irakaskuntzan* egitasmorako. Aurrera begira, bide horretan pauso berriak ematea da Nafarroako Bertsozale Elkarteen eta Hezkuntza Departamenduaren asmoa.

Bertsolaritza irakaskuntzan programa berriro finantzatzeari ekin dio Nafarroako Gobernuak. Hain zuzen ere, 2016an 52.000 euro bideratuko ditu bertsolaritza eskolak eman ahal izateko Nafarroako D ereduko ikastetxeetan. 96 talde izango dira Hezkuntza Departamenduak finantzatuko dituenak; 15 eta 20 ordu bitarteko bertsolaritza eskolak jasoko dituzte, eskola orduetan. 5. eta 6. mailako ikasleek jasoko dituzte bertsolaritza eskolak, Nafarroako Bertsozale Elkarteko irakasleen eskutik.

2013an *Bertsolaritza irakaskuntzan* programarako finantziazioa moztu zuen Hezkuntza Departamenduak eta, iaz, Gobernu berriarekin afera bere onera ekartzeko lanean hasi ziren Nafarroako Bertsozale Elkartea eta Hezkuntza Departamendua; behin-behinean ikasturtearen azken hiru hilabeterako diru-partida bat bideratzea onartu zuen Gobernuak. Orain, behin aurrekontuak onartuta, 2016rako 52.000 euroekin programa finantzatzea adostu dute. Hezkuntza Departamenduarena programaren finantziazioaren zati bat da, gainerakoa udal eta mankomunitateei esker finantza daiteke.

Finantziazio horri esker, *Bertsolaritza irakaskuntzan* programa zabalduko da: batetik, ordu kopurutan eta bestetik, geografikoki, orain arte ailegatzen ez zen hainbat eremu eta ikastetxetara iritsiko baita.

2016rako akordioa lortuta, elkarlanean sakontzea da Nafarroako Bertsozale Elkarteen eta Hezkuntza Departamenduaren nahia, aurrerantzean bertsolaritza irakaskuntza programa egonkortzeko eta zabaltzeko eta harekin lotutako beste hainbat ekimen bideratu ahal izateko.

Ibilbide gorabeheratsua

Bertsolaritza irakaskuntzan programa 1997tik dago martxan, Nafarroako D ereduko ikastetxeetan. Horri esker, urte horietan guztietan milaka gaztetxok izan dute aukera bertsolaritza eskolak jasotzeko, ikastorduen barruan. Nafarroako Bertsozale Elkartea arduratu da programaren kudeaketaz, Hezkuntza Departamenduarekin izan dituen kontratuen bidez.

Azken urteetan programak traba eta murrizketa ugari jasan zituen. Besteak beste, urtetik urtera programarako bideratutako diru kopurua murrizten joan zen Nafarroako Gobernua, harik eta 2013ko irailean Nafarroako aurrekontuetan horretarako aurreikusia zegoen diru-partida ez zuela exekutatu jakinarazi zuen arte, beste lehentasun batzuk zituela argudiatuta.

Ikastetxeen, udal zein beste eragileen aldetik egitasmoak jaso zuen babesak ez zuten Hezkuntza Departamenduaren jarrera aldarazi. 2014ko maiatzean Nafarroako Parlamentuak *Bertsolaritza irakaskuntzan* programa mantentzeko eta finantzatzeko eskatzen zuen mozioa eskatu zuen.

Horrenbestez, 2013ko irailetik Nafarroako Gobernuaren finantziaziorik gabe segitu du aurrera *Bertsolaritza irakaskuntzan* programak, murriztuta eta zailtasun handiz. Udal, mankomunitate eta ikastetxeek ematen dioten laguntzari esker mantendu ahal izan da egitasmoa egoera zail horretan.



Bertsolaritza irakaskuntzan transmititza da egitasmoaren xedea.//XDZ

Arabako eta Nafarroako taldekako ekimenen azken saioak

Urtarrilean abiatu ziren biak eta martxoan amaituko dira. Bide paraleloak izan dituzte Arabako Bertso Kuadrilla artekoak eta Nafarroako Bardoek. Talde ekimenak dira, baina bakoitzak bere ezaugarri propioak ditu. Martxoaren 12an egingo dute Argantzunen Kuadrilla artekoaren final-jai, eta astebete geroago Etxarri Aranatzen Bardoek finala jokatuko da.

Trebiñun aurkeztu zuten Arabako Bertso Kuadrilla artekoa eta Trebiñuko konderriko beste herri batean emango diote amaiera, Argantzunen. Martxoaren 12an izango da, egun horretan egingo duten final-jaiarekin.

Egun osoko egitaraua prestatu dute egun horretarako eta bertan aurtengo Kuadrilla artekoan aritu diren 14 talde hartuko dute parte. 11:00etan autobusa aterako da Gasteizko Iparralde Gizarte Etxetik eta ordu erdi beranduago hitzordua izango da Argantzungo herriko plazan.

Hortik aurrera, bertsoak eta jai giroa nagusituko dira: bat-bateko eta idatzizko taldeekin erronkak herri osoan zehar, bazkaria eta ondorengo bertso-saio musikatua, bertso-guda, elektrotzaranga, bertso-ragga eta bestelako ekitaldiak izango dira goizetik iluntzera. Festa giroa ziurtatzeko txosna jarriko dute herrian, eta Argantzunen bertan lo egiteko aukera ere egongo da.

Laugarrenez egin dute urtarrilaren 23an hasi zen Arabako Bertso Kuadrilla artekoa. Bat-batekoan 14 talde aritu dira eta idatzizkoan, 10 talde; osotara 150 lagun inguruk hartu dute parte egitasmoan eta 6 topaketa egin dituzte Arabako 6 eskualdetan. Hastapeneko helburu berberak izan ditu laugarren edizio honek: Arabako bertso mugimendua saretu eta indartzea.

Bardoek finala, hilaren 19an

Bardoak Nafarroako taldekako ekimenak hirugarren edizioa izan du aurten eta martxoaren 19an ailegatuko da amaierara. Etxarri Aranazko frontoian jokatuko da finala eta bertan hiru talde hartuko dute parte; gutxienez bederatzi bertsolari izango dira oholza gainean.

Hainbat lan egin beharko dituzte hiru taldeetako ordezkariak eta beste taldeetako kideek zein entzuleen botoek erabakiko dute zein talde den hirugarren edizio honen irabazlea. Saioa 17:00etan hasiko da eta sarrerak dagoeneko salgai daude www.bertsosarrerak.eus atarian. 10 euroan dago sarrera bazkideentzat eta 16 urtetik beherakoentzat eta 12 euroan gainerakoentzat.

Ohi bezala, finala amaituta triki-poteoa egongo da herrian barna eta amaitzeko Bardoek afaria. Afarirako txartelak ere salgai daude internetez eta kopuru mugatua da.

Urtarrilaren 22an abiatu zen Bardoek aurtengo edizioa eta osotara 23 saio jokatatu dituzte Nafarroan barna. 121 parte-hartzaile izan dira 16 taldetan banatuta, horietatik 71 bertsolari zirela. Hirugarren edizio honetan bardoak eremu berrietara zabaldu dira eta lehen aldiz Lizarran, Altsasun eta Aurizberrin taldeak atera dituzte.



Trebiñun hasi zen eta Argantzunen amaituko da Kuadrilla artekoa.//XDZ



Bardoek finala martxoaren 19an jokatuko da Etxarri.//XDZ



Puntu jarrita

ELI PAGOLA APEZETXEA

Ez nuen enkargu hau berehalakoan espero, Maddil Hasteko deserosotasunez galdetzen didazu eta aitortu behar dizut artikulugintzak azkura pixka bat eragiten didala. Idatziz espresatzea ez dut indarguneen artean. Hala ere, ez dut ahalegindu ezaren damuaz ibiltzeko batere gogorik eta azkura killima bihurtuz, ea gogoetak txukun papereraten ditudan.

Deseroso sentitu ohi naiz nire ustez eman dezakedana baino gehiago/gutxiago exigitzen didatenean, izan antolatzaile, kantukide edo entzuleek. Ez dut programa osatuko duen bat gehiago soilik izan nahi. Batzuei gustatuko zaie eta beste batzuei ez, noski, baina deitzen banaute entzun nahi nautelako izan dadila.

Barrura begira, berriz, estu, kontrolrik gabe zein galduta nabilen uneak eramangaitzak zaizkit. Dena delako saioa hasi eta hamar minutuan noiz bukatuko ote duzun desiratzen egotea sufrimendu hutsa da. Hutsuneen erakusle ere izan daitekeenez, konfiantza izan behar denbora eta esperientzian egoera hauei hobeto egingo diegula aurre.

Gabeziak ditut eta izango ditut. Barneratua daukat ez naizela diziiplina guztietan nahi ahala moldatuko, baina ez da derrigorra izango ere. Salbuespenak salbuespen, saio guztietan izango dugu kideren bat gurekin kantari (kideaz gain laguna bada, hobe) eta elkar osatzeko aukera dugu.

Bertsolari aukera ez da hain murrizta, estiloz nahiko anitzak garena eta oro har maila ona dagoela esango nuke. Konkistaren erreferentzia ere bertan sartuko nuke, leku bakoitzeko egoera soziolinguistikoa dela eta, errazagoa baita bertsolari batzuekin enpatizatzea beste batzuekin baino.

Batzuk batuan kantatzea aukeratzan dute, beste batzuk beraien euskalkia mantentzen dute, bada euskalkia zertxobait zabaltzen duenik ere... Niri euskalkitik hurbilago ibiltzeak bizi eta natural espresatzen laguntzen didatelakoan nago. Horren harira Beñat Iguarani luzatu nahi diot hausnarketarako tartea. Erabiltzen duzun hizkuntza erregistroaren eta aukeraketa (hala izan bada behintzat) honen ondorioez galdetu nahi dizut. Egoera guztietan mantentzen al duzu hizkera ala esanahi, tonu edo ariketaren arabera aldatzen duzu? Nola sentitzen zara zure moldeak konpartitzen ez duten entzuleen artean?

Koplak

Arabako saioak antolatzeko eskaintza

2016. urtean Arabako elkartei, entitate publikoei -udalak, kontzejua- eta kolektiboei -jai batzordeak, gazte asanbladak...- 12 bertso-saio dohainik antolatzeko eskaintza publikoa egin die Arabako Bertsozale Elkartek. Bertso-saioak antolatuz bertsolaritza ezezaguna den tokietara eta kolektiboengana hurbiltzeko egitasmoa da *Araba Bertsozale*. Martxoaren 11 da eskaera egiteko azken eguna eta informazio osoa www.bertsozale.eus/eu/araba/proiektuak/araba-bertsozale webgunean aurkituko duzue.

Poto-Finixa



Pisua, sagardo truk.

Xenpelar Dokumentazio Zentroa

Martxoaren 18an, BBK sariketaren finala

Otsailaren 17an abiatu zen Igorren bertsolari gazteen BBK sariketaren 24. edizioa eta zortzi dira bertan parte hartu duten taldeak, 60 bertsolari inguru. Sariketaren finala martxoaren 18an jokatu da Bilboko Kafe Antzokian, 19:00etatik aurrera. Sarrera doakoa da eta finalera hurbiltzeko gonbita luzatu dute antolatzaileek.

Kontratazioak eta informazio gehiago:

Lanku
www.lanku.com
943 26 07 55

Tab. Seta eta Fernando Jauritz

ISTORIO TRUKEA(n)

KAPUIA NA-BATZINTZILIK

KONTU ETA KANTU

FERNANDO JAUZITEZ

PUBLIZITATEA